

XI. Azoka Berezia, etzi

Isats Gisatuaren
Lehiaketa
izango da,
besteak beste ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Osteguna ▶ 2006-10-05 ▶ IV. urtea ▶ 979. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

CHELO ROMEO ▶ IBARRAKO ALKATEA

«Otarreaga eta Apaiz-Errekarako baimena ostiralean jaso genuen»

IBARRA ▶ Errepidearen inguruko bizilagunen aldarrikapenen aurrean «errugabea» dela dio

KONPROMISOAK ▶ «Berehala ekingo diegu lanei, langileak etortzen direnean» ▶ 6

ALEGIA ▶

Intxurreko neskek hasiera ezin hobea

Lurraldekako mutilek garaipena eskuratu zuten Loiolako La Salleren aurka ▶ 5



TOLOSA ▶

Zerkausi eraberritan Garagardo Festaren VIII. edizioa

Gaurtik igandera bitarte zer jan eta edan izango da; hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte ▶ 2-3

Iazko Festa. I. GARCIA

TOLOSA ▶

Tolosar gotzain baten aztarnaren bila Galizia aldera

Frantzisko de Tolosak goi karguak izan zituen frantziskotarren artean ▶ 7

TOLOSALDEA - LEITZALDEA ▶

Bermerik ez, euskara hutsezko tokiko telebistentzat ▶ 4



AHT Gelditu! Elkarlanak Legution egingo den manifestaziora joateko deia egin du

TOLOSALDEA ▶ Eskualdeko Abiadura Handiko Trenaren aurkako plataformak Legution, hilaren 8an, egingo den manifestaziora joateko deia egin du. Bertan, atzoko prentsaurrekoan —argazkian— azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Sustapen Ministerioari Euskal Y-aren egitasmoa gelditzea exijituko dute. Horretaz gain, aldarrikatu nahi dute, «martxan jarri behar dela, gizartean desadostasuna sortzen ari den makroproiektu honen informazioa, eztabaida eta erabaki prozesu parte-hartzailea. Tolosaldeko autobusa antolatu dute hara joateko. ESTI EZEIZA ▶ 3



GARAGARDO FESTA ▶

Gaurtik igandera arte irekiko ditu ateak, VIII. Garagardo Festak, Zerkausi eraberrituan

Berrikuntzen artean, bi solairutan banatuko dela eta urrian egitea izan dira; janariak eta edariak gain, hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburu osoan zehar

ESTI EZEIZA

Atzerapenez bada ere, azkenik, gaur hasiko da VIII. Garagardo Festa. Tolosaren 750. urteurrena dela eta ohiko datak aldatu eta, bi aste beranduago burutuko da azoka. Aurtengoan, Udalarekin elkarlanean, lau kirol talde izan dira antolatzaileak: Tolosaldea IKT, Judo Klub Tolosa, Hegoalde K.E. eta Tolosa CF Txirrindulari taldea. Arratsaldeko seietatik gauerdirarte zabalik izango ditu ateak azokak.

Lau egunetan zehar, garagardo mota andana dastatu ahal izango da Zerkausi eraberrituan, 24 hain zuzen ere. Oraingoan ere jende ugari espero dute antolatzaileek, 4.000 lagun inguru. Bestalde, Zerkausiaren irekieraren ondoren, goiko solairua afariak emateko erabiliko dute. Bainugelei dagokionez, gizonezkoek Zerkausiaren azpian jarriko dituzte, eta emakumezkoek, berriz, Triangulo plazako zerbitzu publikoetan. Zenbait berrikuntzekin dator, beraz, aurtengo Garagardo Festa. Besteak beste, jakien eskaintzan ere, aldaketa bat egitea erabaki dute antolatzaileek, saxoniari solomoa eta patata frijituak zerbitzatzeko baitira.

Bestalde janari eta edariak gain, beste haibat ekitaldiak ere gozatu ahal izango dute tolosarrak. Horren adibide gauzatzeko diren musika jarduerak: txalaparta emanaldia gaur, Tolosako Banda ibiliko da bihar kaleetan zehar, eta Vista Alegrekoa larunbatean. Haurrek ere izango dute ongi pasatzeko aukera, Txirri, Mirri eta Txirribi-

iragarki laburrak ▶

LANA

Mantenimendua. Lorezainak, elektrifikariak, arotzak... behar dira erakunde publikoetarako. 943 31 37 82.

Anbulatorioak. Honako arloetarako pertsonala behar dute: laborategiak, erizaindegia, administrariak, mantenimendua. 943 31 37 82.



Joan den urteko VII. Garagardo Festako eta Pedal Eguneko irudiak. IMANOL GARCIA / GARAZI AZKUE

Txirri, Mirri eta Txirribiton Junior, etzi

Erredakzioa ▶ VIII. Garagardo Festaren baitan, Txirri, Mirri eta Txirribiton Junior pailazoek, *Pailazoketan* ikuskizun berria emango dute estreinakoz Tolosan. Ekitaldia larunbatean, hil honen 7an, burutuko da, Leidor aretoan, arratsaldeko bostetan. Sarrerak eskuratu nahi dituenak, jadanik eros ditzake, Kutxanet, Servikutxa eta Telekutxan. Hauen salneurria, 4 eurotakoa da.

Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoak aski ezagunak dira Euskal Herrian. Eta euren ondorengoak ere, Txirri Junior, Mirri Junior eta Txirribiton Ju-

nior artista bihurtu dira eskualdean.

Pailazo gazteak 2003-2004 ikasturtean jarri ziren martxan, *Pantera beltza* birarekin. Gero, 2005-2006 denboraldian dimorea eta festa giroa izan dira nagusi *Mirri Tel* ikuskizunean. Orain berriz, buru-belarri prestatzen ari dira ikasturte honetarako bira berria, hirugarrena alegia, *Pailazokeriak* izenpean, agerraldi gaberro, koloretsu eta alaiak aurkeztuko dute larunbat honetan.

Mikel Otaegi, Txirri Junior; Katalin Ansorena, Mirri Ju-

nior; eta Fernando Ruiz, Txirribiton Junior izango dira berriro, 50-60 minutuko espektakuluan. Batetik, esketch labur barregarriak egingo dituzte: Txirriren kapela hegalaria, Greba mirrianoa, Txirribiton bi-bolin-jolea, Aulki ikustezina, Txantxibiri agentzia, edota Txirribiton hor konpon.

Esketch horiekin tartekatuta, abesti ederrak eskainiko dituzte: *Barre egin*, *Joxe Mondragon*, *Akelarrea*, *Baratzeko pikuak*, *Tortolika*, *Toto Pintotxo*, *Bonjour Paris*, *Alta Pelipe...* Eta nola ez, *Pintto-pintto* eta *Zapi zuria* mitikoak. ◀

8. GARAGARDO FESTA ▶

EGITARAUA

Gaur. Txalaparta Zerkausian, 19:30etik 20:00etara.

Bihar. Tolosako Banda kaleetan zehar, 20:00etan.

Etzi. 17:00etan, Pedal Eguna San Frantziskon; 17:00etan, Txirri Mirri eta Txirribiton junior pailazoan emanaldia Leidor aretoan; 20:00etan, Vista Alegre txaranga kaleetan zehar.

Igandea (hilak 8).

17:00etan, zirko tailerra Trianguloan; 18:00etan, ajedrez erraldoia Plaza Zaharrean, Tolosako Xake elkartearen eskutik.

ZENBAIT DATU

Egunak. Gaur, bihar, etzi eta igandean.

Lekua. Zerkausia

Ordua. 18:00etatik, 00:00etara eta larunbata eguerdian.

Antolatzaileak. Lau kirol talde: Tolosaldea IKT, Judo Klub Tolosa, Hegoalde K.E. eta Tolosa CF Txirrindulari taldea.

Lanean ariko direnak. 200-250 pertsona.

Azokan espero direnak. 3.500-4.000 lagun.

Garagardoa. 24 ezberdin.

Janaria. Ukondoa, patatak, saxoniari solomoa, euskal pastela eta gazta.

ton Junior pailazoekin, zirko tailerrarekin...

Pedalaren festa

VIII. Garagardo Festaren baitan, Pedalaren festa ospatuko da larunbatean. Hala, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, herrian zehar gaztetxo txirrindulari proba gauzatzeko da. Bertan parte hartu nahi dutenek, 5 eta 12 urte bitartean izan beharko dituzte.

Proba arratsaldeko bostetan hasiko da, San Frantzisko elizaren paretik. Hiru mailatan banatuko dira txirrindulariak; alde batetik, 5 eta 8 urte bitartekoak. Bestetik, 9 eta 10 artekoak, eta azkenik, 11 eta 12 urte artekoak. Irabazleentzat hiru sari egongo dira. Lehenengoak 90 euro irabaziko ditu, materiallean gastatzeko. Bigarrenak 60, eta hirugarren geratzen denak berriz, 30 euro jasoko ditu. Lasterketan izena eman nahi duenak, irteera baino ordubete lehenago joan beharko du San Frantziskora. Proban parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da kaskoa eramatea.

ASIER BAKAIKOA ▶ ANTOLOTZAILE TALDEKO KIDEA

«Beste ekitaldiekin batera Tolosa indartzen joatea da helburua»



J. SAIZAR

I. Terradillos ▶ Tolosako 4 kirol talde ari dira lanean Garagardo Festako antolaketa. Tolosaldea IKT, Tolosako Judo kluba, Hegoalde KE eta Tolosa CF Txirrindulari taldea, hain zuzen. Jende ugari hartzen du parte dena behar bezala irten dadin, eta tartean da Asier Bakaikoa tolosarra. Aurten azokak dakartzen berrikuntzen inguruan eta, orohar, festa honek izaten duen helburuaz aritu da solasean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Zeintzu dira aurtengo Garagardo Festaren berrikuntza nagusiak?

Berrikuntza nagusia lekua da, izan ere, Zerkausia eraberritu ostean gu izango gara lehenak estreinatzen. Gainera, orain arte tolosarrek erabili izan ez duten lekua ere estreinatuko dugu, Zerkausiaren 2. solairua. Proba modukoa izango da, lehenak izango garelako bertan sartzen. Dena den, lekua berria izateak ere baditu alde txarrak, besteak beste, txukunago ibili beharko da orain.

Zerkausiaren 2. solairua afariak emateko erabiliko duzue.

Hala da. Kasu horretan eguraldia alde egotea espero dugu, ez baitago aterperik, baina toloak ere baditugu eurari aurre egiteko. Hori bai, eguraldi oso txarra egiten badu, ezin izango dugu goian egin. Hala ere, beste urteetan bezala, Plaza Zaharra ere egokituko dugu bertan afaltzeko.

Berrikuntzen artean zer gehiago aipa genezake?

Beste aldaketa garrantzitsua datarena izan da. Orain arte, irailaren erdialdean izaten zen, baina aurten atzeratzea erabaki genuen, Tolosaren

750. urteurrena dela-eta antolatuta zeuden ekitaldiekin. Asteburua gehiegi kargatzea izango zen, eta izan ziren ekitaldiekin soilik giro berezia sortu zen. Bestalde, eskainiko dugun janarian ere badira berrikuntzak, eta baita komunen ere, gizezkoentzat Zerkausiaren jarriko baititugu, eta emakumeentzat Triangu-loan.

Jendeak uste zuen azkenean aurten ez zela egingo Festa.

Nahiko larri ibili gara. Ez egitekotan ere bai. Zerkausiarena ez genekien posible izango zen, eta Ferialekuan egitea ere pentsatu genuen. Azkenean, ordea, posible izan da.

Nolako ekitaldiak antolatut ditzuzue?

Gazteentzat eta ez hain gazteentzat, denetarik izango da. Bagenuen beste hainbat ekitaldi berri antolatzeko asmoa, baina azkenean beste urteetakoak mantendu ditugu. Hurrengo urtean saiatuko gara berrikuntza horiek sartzen.

Zein helburu izaten du Garagardo Festak?

Garagardo Azokarekin oso giro berezia sortzen da asteburuan. Beraz, hau eta beste ekitaldiekin batera, Tolosa indartzen joatea da helburua. Beraz, aurten eguraldi ona egin dezala, eta animatu dadila jendea giro bereziaz gozatzera.

Horretaz gain, lau kirol talde antolatzaileentzat laguntza ekonomikoa izaten da.

Antolatzea esfortzu handia izaten da, baina merezi du taldeek jasotzen duten diruarengatik. Bestalde, jendearen laguntza boluntarioa pixkanaka pixkanaka galtzen ari dela ere aipatzekoa da. ◀

AHT ▶

Legutiora joateko deia egin du AHT Gelditu! Elkarlanak

Igandean, Euskal Y-aren aurka egingo den manifestazioan parte hartzera

bernan; Anoetako Itzulin; eta Adunako Aztartzan.

Tolosaldeko datuak

ESTI EZEIZA

Abiadura Handiko Trenaren aurkako Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana plataformak urriaren 8an, Legutien inguruan den manifestaziorako deia egin du. Bertan, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Sustapen Ministerioari exijitu nahi diote, «Euskal Y-aren egitasmoa gelditzeko». Honez gain, aldarrikatu nahi dute «martxan jarri behar dela, gizartearen desadostasun ikaragarria sortzen ari den makroproiektu honen inguruko informazioa, eztabaida eta erabaki prozesu parte-hartzaile bat».

Garraio Sailak iragarritako informazio kanpainaren inguruan salatzen dute, «gezur izugarria» dela AHTren alde kamioien zirkulazioa murriztuko lukeela esanez gehienetan errepikatzen den «sasi-kanpaina».

Plataformak emandako datuen arabera, «proiektuarekin batera errepide bidezko garraioaren gehitze beldurgarria aurreikusten da azpiegitura plan guztietan, instituzioen garapenerako politika txikitzailea berretsiz». Hau guztia dela eta,

Legutien inguruan den manifestazioan ahalik eta jende gehien biltzeko dei egiten dute. «AHTren inposaketak gizartearen ezezkoa jaso dezan eta proiektu txikitzaile hori gelditzeko herriarrok daukagun erabaki sendoaren froga eman dezagun». Halaber, egun berean, 15:30etik aurrera Legutioko Kultur Etxean egingo den Batzar Orokorra joateko gonbidapena luzatu nahi dute.

Autobusak eskualdetik

Hilaren 8 manifestaziora joan ahal izateko autobusa antolatu du Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak. Hau, Villabonako Kiroldegiaren aurretik abiatuko da 10:00etan. Ondoren, Anoetara joango da, eta hemen bigarren geldialdia egingo du, 10:15etan, Apaetxe aurrean. Azken geraldia Tolosan egingo du, 10:30ean, Trianguloan.

Autobus txartelak zortzi eutrotan erosi ahal izango dira. Hauek, honako lekutan egongo dira salgai hilaren 6ra arte: Tolosan, Raku eta Meskal tabernetan; Ibarren, Atarin eta Zubiaurren; Villabonako Gaztetxean; Zizurkilgo Aurrera ta-

Plataformakoek emandako datuen arabera, Euskal Y-ari dagokionean, eskualdean, 19 kilometroko luzera izango du Abiadura Handiko Trenaren sareak. Hala, ibilbidearen %70a lurrazpitik joango litzateke. Honen ondorioz, «tunelen zulaketatik ateratako soberakinak botatzeko 13 hondakin-degi aurreikusten dira, guztira 72 hektarea lur estaliz».

Bestalde, gaineratutako informazioaren arabera, Nafarroako korridorea Tolosaldean lotzen bada, beste 23 kilometro trenbide eraikitzea suposatuko luke, eta ibilbidearen %55a inguru lurrazpitik joango litzateke. «Hondakindegien lurrazalera berriz, beste 70 hektareatan kalkula daiteke».

Hau guztiagatik, Tolosaldeko Udalek proiektu honen aurrean duten jarrera gogor salatu nahi dute AHTren aurkako plataformakoek. Beraien ustetan, «Udalek erantzukizun handia dute, proiektu honen inguruan noizten ari garen desinformazioan». Hau dela eta, eskari bat luzatu nahi diete Udalei, «AHT-k eragingo lituzkeen ondorioekiko informazioa bildu, zabaldu eta eztabaida bultzatzea».



Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanean plataformakoak, herenegun, prentsaurrekoan. E. EZEIZA

VILLABONA ▶ ELIKAGAIEN XI. AZOKA BEREZIA

Berezitasunak aukeran herriko plazan

Irrintzi elkarteak Elikagaien XI. Azoka Berezia antolatu du etzi goizerako

IMANOL GARCIA

Villabonako Irrintzi elkarteak Elikagaien XI. Azoka Berezia antolatu du etzi goizerako. Euskal Herriko eta Errioxako (Espainia) hainbat saltzaile etorriko dira beraien berezitasunak eskaintzera. Edariak, barazkiak, kontserbak, pateak... erosteko aukera izango dute Errebote plazara joaten direnek. 09:00etan hasi eta 14:00ak arte izango da zabalik azoka. Euria egiten badu Txeringo Ikastolan egingo dute.

Ekitaldi arrakastatsua izan

ohi dela azaltzen dute antolatzaileek: «Saltzaileak gustura etortzen direla diote, asko saltzen baitute». Villabonan urte guztian egiten den azoka berezi bakarra izaten da. Etorriko diren 30 saltzaile inguruk, salmentez gain, badute ere beste sari batzuk jasotzeko aukera, postu apainenak sarituko baituzte. 180 euro jasoko ditu postu apainenak; bigarrenak 120 euro eskuratuko ditu eta hirugarrenak 90 euro eramango ditu.

Azoka Bereziaekin batera Isats Gisatuaren Lehiaketa an-



laz jende ugari bildu zen azokara. NEREA LIZARTZA

tolatu du Irrintzi elkarteak. Inguruko bost herrietako hamar elkarte hartzen dute parte txapelketa horretan: Txulobi (Aduna), Katilutxulo (Larraul), Santamaña eta Aitzondo (Asteasu), Urkamendi eta Ibaiertz (Zizurkil), eta Uxo-Toki, Behar-

Zana, Zumbeltz eta Irrintzi (Amasa-Villabona).

Antolatzaileek elkartei isatsa eta 42 euroko dieta osagaiak erosteko ematen dizkiete. Elkarte bakoitzak bere txokoan prestatzen du jakia eta ondoren plazara agertzen dira.

Banaka Irrintzi elkartera joaten dira prestaketa lanak egin eta epaileen aurrean aurkezteko.

Irabazleak Irrintzi elkarteak maskorra jasotzen du saritzat. Hirugarren aldiz irabazten duenak jabetzan jasotzen du garaikurra. Lehenengo biei sari bezala sukaldeko tresnak ematen zaizkie. Lehiaketaren ondoren, bertan parte hartu dutenek eta zenbait gonbidatutako Irrintzi elkartearen bazkaria egingo dute lehiaketarako egin dituzten isats gisatuak.

Musika emanaldiak

Irrintzi elkarteak 25. urteurrena ospatzen ari da aurten. Hori dela-eta ekitaldiak antolatu dituzte hil honetarako, guztiak musikari lotuak. Alde batetik, txistuaren inguruko hitzaldi-kontzertua egingo dute hilaren 19an. Mikel Aranburuk emango du hitzaldia eta Garikoitz Mendizabalek eta Aitor Arozek eskainiko dute kontzertua. Beste emanaldia Andoingo Musika Eskolako musika bandak egingo du, hilaren 22an.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Jaurlaritzak ez du euskara hutsezko tokiko telebista bermatu

Aurreikuspenak betetzen badira, 2008 urtean hasiko dira emititzen lehenengo tokiko telebista digitalak

ESTITXU UGARTE (Berria)

Epeak betez gero, 2008. urtean jarriko dira martxan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lehenbiziko tokiko telebista digitalak. Eusko Jaurlaritzak onartu berri du telebista sare hori arautuko duen dekretua, eta aurreikuspen arabera, azaroan lehiaketaren oinarriak onartuko dituzte. Lizentzia eskatu nahi dutenek 90 egun natural izango dituzte horretarako; Jaurlaritzak sei hilabeteko epean hartuko du erabakia. Baimenak eman ostean, urte eta erdiko epea izango dute ku-

deatzaileek emisioak abian jartzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak herenegun goizean onartu zuen tokiko telebista digitalaren lizentzia banaketa arautuko duen dekretua. Jaurlaritzaren Kultura sailburu Miren Azkaratek azaldu zuenez, hiru helburu nagusi jasotzen ditu onarturiko dekretuak, eta horiei heldu beharko diete Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan telebistak kudeatu nahi dituzten enpresa eta administrazio publikoek.

Sailburuak azaldu zuenez, euskarazko produkzioa lehe-

natea da telebista operadorek jarrailu beharreko irizpide nagusietako bat. Hortaz, esleipena egiterakoan operadore guztiek euskararen gutxieneko derrigorrezko eskaintza egin beharko dute, barruti bakoitzean dagoen euskaldunen ehunekoaren arabera. Dena dela, gutxienekoa ezartzeko irizpide ezberdina ezarri dute udalen kasuan eta operadore pribatuen kasuan. Hartara, udalek kudeatutako telebistetan euskarazko gutxieneko eskaintzak %50ekoa izan beharko du, eta operadore pribatuen kasuan, %20koa.

Bistan denez, dekretuak ez du ziurtatzen eskualde bako-

itzean euskara hutsezko kateak egongo direnik. Eta hori da, hain zuzen, euskalgintzan aritzen diren hainbat eragileek azken hilabeteotako eskaera nagusia. Izan ere, egoera horri aurre egiteko eta eskualde guztietan tokiko euskarazko telebistak sortzeko sortu da Hamaika Telebista.

Neurriak

Kezka horren harira, Kultura sailburuak azaldu zuen Eusko Jaurlaritzak beste neurri bat ezarri duela barruti bakoitzean nagusiki euskaraz emitituko duen kate bat izatea bermatzeko. Hala, hiru probintzietako barrutiretan batean produkzioaren %50 baino gehiago euskaraz eskaintzen duen operadorek ez badago, kate bat esleitu gabe utziko du Jaurlaritzak, eta euskarazko eskaintza lortzeko aukera dagoenean lehiaketa aterako du. Azkarateren aburuz, aldaketa «ausarta» izan da hori, eta hainbat eragilek azalduzko kezkarik erantzun nahi izan dio.

Hortik aurrera, Azkarateren esanetan, eskatutako euskararen ehunekoak gainditzen duten

operadoreak lehenetsiko dira, eta, bereziki, euskara hutsezko emisioak egiten dituztenak.

Bestetik, eta hizkuntza irizpidearekin batera, telebista digitalaren gertutasuna eta tokiko informazioa eskaintzea kontuan hartuko direla aipatu zuen Azkaratek: «Gertuko informazioa eman beharko dute telebista digitalek, herrialdean, eskualdean, zer gertatzen den zabaldu; beste telebista kateek nekez emango duten informazioa eskaini».

Halaber, eduki propioak lantzeko beharra nabarmendu zuen Kultura sailburuak. Izan ere, dekretuak sareak eratzea debekatzen du, eta sarean programazioaren %25 besterik ezin izango dute eskaini telebista kateak.

Nolanahi ere, eduki propioen alorrean izan da aldaketarik. Hala, telebista kateek elkarlanean, sindikatzean, lan egitea onartu da. Hortaz, programazio orokorraren %40 era horretan ekoiztu ahal izango dute kudeatzaile pribatuak. Udalek eta euskararen gutxieneko eskaintzetatik gora egiten duten kateek, berri, %60 sindikatuta landu dezakete.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

iragarki laburrak ▶

LANA

Mantenimendua. Lorezainak, elektrikariak, arotzak... behar dira erakunde publikoetarako. 943 31 37 82.

Anbulatorioak. Honako arloetarako pertsonala behar dute: laborategiak, erizaindegia, administrazioak, mantenimendua. 943 31 37 82.

ALEGIA ▶ ARETO FUTBOLA



Nesken Intxurre areto futbol taldeko jokalariek, entrenamendu baten aurretik. N. URBIZU

Hasiera ezin hobea izan dute neskek

Intxurre taldeko senior mailako neskek eta lurraldekako mutilek Loiolako La Salleren aurka lortu dituzte garaipenak

NEREA URBIZU

Intxurre futbol eta areto futbol taldeek emaitza onak jaso dituzte asteburu honetan: bi talde helduenek garaipenak ekarri dituzte Loiolako zelaietik.

Senior mailan dauden neskek eroso irabaztea lortu zuten, 0-5 izan baitzen emaitza, Loiolako zelaian —Donostian—. Goleatzaileak Idoia Garaialde amaroztarra, Esther Videra alegiarrak eta Eskarne Agirre amaroztarra izan ziren. Jokalariek araberak, «erraz irabazi genuen, baina taldea gu

baino txarragoa zen. Hala ere, gure arteko jokua ere hobetu egin behar dugun».

10 neska joan ziren jolastera, eta hamarrek hartu zuten parte partidan. Hurrengo norgehiagoka bihar izango dute Alegiko pilotalekuan, eta aretio Tolosako Orixe izango dute; 21:00etan izango da.

Lurraldekako artekoan, Intxurre futbol taldeak La Salleren aurka ere irabazi egin zuten, 0-2ko emaitzarekin. Jubenilak Beasainen kontra aritu ziren eta ez zuten zorte bera izan, 2-3 galdu baitzuten. Kade-

teek ere ezin izan zuten irabazi Lazkaokoan kontra, gol bat markatu baitzuten Goierriko taldeak.

Lurraldekako hurrengo partida larunbatean izango da, 16:00etan Ikasberriren aurka, Alegian bertan. Intxurreko gazteak Lazkaora joango dira, etzi, 11:30ean. Kadeteek Tolosakoan kontra jokatu dute Alegian, 11:00etan.

Dirudienek, hurrengo jardunaldia aurreratu egingo dute, zubiak direla eta. Hurrengo egunetan zehaztuko dituzte orduak eta egunak.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiazek hiru partida irabazi ditu

Zazpi-Iturrik zortea bere alde jarraitzen du izaten, garaipen askorekin

N. URBIZU

Aurrera-Saiazek 9 partida jokatu ditu aurreko asteburuan eta hauek izan dira emaitzak. Denera 3 irabazi dituzte: horietako bi jubenilen mailakoak izan dira. Zazpi-Iturrik jokatu-tako guztiak berriro ere irabazi egin ditu.

Hauek izan dira garaitu dituzten partidak: 2. mailako ju-

benilek Eibarren aurka 22-6 irabazi zuten. Jubenil 1. mailan Añorgakoan aurka 12-22koa lortu zuten. Senior 3. mailakoek Hernanikoan aurkakoan 11-22 irabazi zuten. Behar-Zanakoan aurkakoan oso berdindu izan zen, baina garaipena Villabonakoentzat izan zen, 21-22koarekin.

Zazpi-Iturri pilota eskolakoan aurka senior 1. mailakoak

izan ziren eta amezketarrentzat izan zen garaipena —6-22—.

Zazpi-Iturri jardunaldi honetan ere ezin hobe aritu da: banakako nagusien artekoan Behar-Zanakoekin jokatu zuten; 22-10eko emaitza izan zen. Belokik ere irabazi zuten Behar-Zanakoan aurkakoan, 22-12 bukatuz. Añorgan binakakoan gazteen artekoan jokatu zuten eta 10-22 irabazi zuten.

HIPOTECAS > GO

Zatoz gurasorik gabe



> GO %100 HIPOTEKA > GO

> GO 6x0 HIPOTEKA > GO

> GO bidez zure askatasuna ez da beste inoren mende egongo. > GO %100 Hipotekak tasazio-balioaren %100 finantzatuko dizu eta ez dizu abal-emailerik eskatuko.

Eta zerotik abiatzen ez bazara, > GO 6x0 Hipoteka da komeni zaizuna.

Argibide gehiago: www.cajalaboral.com/go

> GO -k den-dena emango dizu

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

TOLOSA ▶

Pasabanekek eta Izagirrek ezin izan dute tontorrik egin

Shisha Pangmako gailurrerako lehen saildia hutsarazi du eguraldiak

M.SOROA

Edurne Pasaban eta Asier Izagirre tolosarrak Shisha Pangma—8.027 metro—igozten saiatu ziren atzokoan. 7.600 metrotara zeudela, ordea, behearantz egitea erabaki zuten haize indartsua eta hotz handiaren eraginez.

Hormatik kanpora joan ostean, oinarritzko kanpamentura jaitsi ziren, bertan bi egunetz atseden hartzeko. Atseden hartu ondoren, eta eguraldi iragarpenak laguntzen duenean, «berriro saiatuko» direla azaldu dute mendizale tolosarrek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutz Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

CHELO ROMEO ▶ IBARRAKO ALKATEA

«Otarreaga eta Apaiz-Errekarako baimena ostiralean jaso genuen»

Leabururako errepidearen inguruan bizilagunek egindako aldarrikapenei erantzun die Ibarako alkateak, «errugabea» dela esanez

MADDI SOROA

Pasa den ostiralean Apaiz-Errekako eta Otarreagako bizilagunek elkarretaratzea egin zuten Leaburura doan errepidearen inguruan irtenbidea eskatzeko. Alkateak bera ez dela erruduna dio. Errepidearen inguruko informazioa eta duen iritzia zein diren adierazi diozki TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI.

Pasa den ostegunean Apaiz-Errekako eta Otarreagako bizilagunek 'Txelo zure hitza bete' zioten.

Ostegunekoaren inguruan gauza bat esan nahi dut. Ni, 2003az geroztik nago Ibarako Udalean eta hasieratik jarri ginen Aldundiarekin harremanetan Leaburura doan errepidearen arazoa konpontzeko, tramitazioak egin ditugu, eta bar. Helburua beti izan da errepideko abiadura gutxiaraztea. Beraz, bizilagunekiko sentibera izan naiz jadanik. Arrazoi guztia dute eta beti izan dute, izan ere auzo horretan bizi denak badaki zein arrisku dagoen. Ni ez naiz erruduna. Beste auzoetan egokitzapenak egiten ari bagara, zergatik ez dugu Otarreaga eta Apaiz-Errekako auzoa egokituko? Ez dago inongo arrazoirik hori justifikatzen duenik.

Eta Aldundiaren erantzuna zein izan da?

Uneoro ukatu izan digute errepidean lanak egiteko baimena, baina une honetan gauzak aldatu egin dira. Ostiralean hitzeko erantzun mesedegarria izan genuen, gainera pasabideak eta abiadura gutxitzen duten gailuak egiteko. Idatzizko baimena ematen digutenean ikusiko da zer gehiago egin daitekeen.

Ostegunean izan zen bizilagunen elkarretaratzea. Ostiralean jaso zenuten baimena. Kasualitate kontua?

Ez dut uste baimena jaso dugun egunari garrantzia eman behar zaionik. Apaiz-Errekako erreka bideratzeko lanak duela gutxi amaitu zirenez Aldundiak ikusi zuen lanak egin daitezkeela eta orain ikusi dute agian, aukera gehiago dagoela errepidean lanak egiteko. Teknikoek jakingo dute zergatik hiru urteren ondoren, hain justu



HITZA

LANAK

«Berehala ekingo diegu lanei, horretaz arduratzen diren langileak etortzen direnean»

tu ostiralean jaso genuen baimena.

Ez al litzateke errazagoa eta merkeagoa izango Apaiz-Errekako lanekin batera izango balitz?

Hori ez da nire eskumenen barnean sartzen. Nire lana baimena lortzea da eta Apaiz-Errekako lanetan ari zirenean oraindik ez nuen.

Errepideko lanetan hasteko data zehatzik ematerik bai?

Diputazioaren hitza jaso dugu jada, orain, beraz, Udalaridagokio poiektuari ekiten. Berehala ekingo diegu lanei, horretaz arduratzen diren langileak etortzen direnean, hain zuzen. Proiektua abian da jada eta epe motzean hasiko dira. Ahal izango bagenu hurrengo astean hasi eta amaituko genuke, baina ez da aste bateko lana.

Zehazki zer egingo da?

Batetik, oinezkoen pasabideak egokitu egingo dira gainera pasabide bilakatuz. Bestetik, berriz, abiadura moteltzeko gailuak ezarriko dira. Bi guneetan egingo da hori, legediaren

PASABIDEA

«Oinezkoen pasabideak egingo dira, gainera pasabide bilakatuz; abiadura moteltzeko gailuak ere egingo dira»

araberako distantziaren barnean, beti ere.

Espaloirik?

Errepidea moldatu nahi da baina hori egokitzapen orokorrari dagokion lana da eta horretarako oraindik ez dugu Diputazioaren baimenik. Ezin dugu oraindik espaloirik egin, utziko baligute, honezkeroko egina legoke.

Urtarrilaren 13an, ordea, baietz zenioen egunkari honetan argitaraturiko artikulua batean.

Horretan gaude oraindik. 2004az geroztik daukagu aurrerokontua, baina ezin dugu. Ez daukagu baimenik espaloia egiteko, momentuz oinezkoen gainera pasabideak eta abiadura moteltzeko gailuak egin ditzakegu soilik, inguruaren egokitzapenari dagokion aldatetarako direlako. Egokitzapen orokorra beste kontu bat da, horretarako beste baimen batzuk behar dira eta oraindik ez ditugu lortu, izan ere, egokitzapen orokorrari dagokionez beste proiektu batzuk ere ba-

ESPALIOIA

«Epe motzean behintzat ez, ez dugu baimenik; oso konplexua omen da espaloia egitea mendia dagoelako»

daukagu, errepidearen bi aldeetara dauden bideak egokitu nahi ditugu, espaloiak egin... Itxaron beharra daukagu proiektu osoa onartzen duten ala ez jakiteko.

Espaloirik ez, beraz?

Epe motzean behintzat ez, ezin dugu. Antza denez oso konplexua omen da errepide horretan espaloia egitea, mendia dagoelako.

Javier Ygartuak, Ibarako PPko ordezkariak, Otarreaga eta Apaiz-Errekako bizilagunei kasu egiteko eskatu ditu.

Ez zait ongi iruditzen egunkarietara nire aurkako idatziak bidaltzea. 2003az geroztik izan dut nik elkartasuna bizilagunekin. Beraz, nik ez dut inoiz gaia saihesti. Eta are gehiago, ez nintzateke nire izena darman kartelaren atzean jarriko, baimenak Aldundiak ematen dituela jakinda. Hori bai dela gaia saihestea. Gutxi iruditzen al zaio uneoro arazoak konpontzen saiatzea? Lanean jarraituko dut, ez berak bezala kritikatzeko jarraitu.

GIZARTEA ▶

JOXEMI SAIZAR

Munduan zehar ibiliz, beti tolosarren bat aurki daitekeela esan izan da beti. Tolosaldeko pertsonaia garrantzitsu baten aztarna aurki daiteke Galiziarra joanez gero. Tui-ko (Pontevedra) katedralean Frantzisko de Tolosa aurkitzen da lurperatuta, bertako gotzain izana XVI. mendean.

Frantziskotarren ordeneko kide izan zen Frantzisko de Tolosa eta ordenaren barruan goi mailako karguak betetzera iritsi zen. Historia osoan zehar, Cantabriako probintziako figura nagusia izan zela dio Angel Uribe *La provincia franciscana de Cantabria* liburuan. Bere bizitzako azken urteetan gotzain izatera iritsi zen, Tuin. Ez zuen urte asko egin, Galizia-ko herri hartan izan zen izurrite gaixotasunarengatik hil baitzen 60 urterekin.

Hala ere, lan handia egin zuen elizbarruti hartan, Ricardo Garcia gaur egungo bertako parrokoak eta Avelino Bouzan artxibozainak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI jakinarazi diotenez. Bertako artxiboan izateko aukera izan genuen eta artxibozainak bere lanen berri eman zigun: «Katedralean obra garrantzitsuak egin zituen: harlosak jarri zituen, Elizari argitasuna eman zion rosetoiak irekiz Santiago eta San Pedro kaperetan eta organoak nabe nagusira eraman zituen». Bere testamentuan obra horiek eta Korpus Kristiko kustodia prozesionala egiteko agindua utzi zuen. Orfebreriako artelan eder hau katedralako museoan bertan ikus daiteke. Zilar zuriz eta urre kolorezkoak dago egina. Bere familiaren armarria bertan agertzen da. Valladolideko Miguel de Mojadós, Manuel de Montanos eta Juan de Napoles Mudarra zilarlegiek egin zuten 1602an. Zilarrezko konketa bat, aldare nagusiko eskailerak, bi april eta zilarrezko beste hainbat objektu oparitu zituen. Fatxada nagusiko atrioa egin zuen.

Tuiko katedrala XII-XIII.

Gotzain tolosar bat Galizian

Frantzisko de Tolosak goi mailako karguak izan zituen frantziskotarren artean; Tolosako komentua sortu zuen



Goztaineren kustodia. J.S.

mendeetan eraiki zuten, monastegi bisigodo baten gainean. Katedralean bertan dago lurperatuta Frantzisko de Tolosa, baina kokapen zehatza jakiterik ez dugu izan bila aritu arren. «XX. mendeko 50. hamarkadan kapera zentralatik alboko batera eraman zituzten hainbat hilobitako aztarnak. Eta horietako batzuk identifikatu gabe daude», azaldu dio HITZARI parrokoak. Zenbait gotzain lurperatuta dauden hilibian bere izena ez da ageri, nahiz eta bere aurrekoa —Bartolome Molino y Sanz, 1589— eta ondorengoa —Juan Garcia de Valdemora, 1620— agertu. Beste gorpu batzuk hiru harlozaren azpian dagoen kripta batean daudela erantsi du Ricardo Garcia.

Tolosan ere bere lanaren ondorioa badugu. San Frantzisko komentua 1587an hasi ziren eraikitzen, bera generala zela, Pedro de Mendizorrotz indiano ibartar aberatsak erosi eta fraileei emandako lurretan.



Tui-ko katedralean dago lurperatuta Frantzisko de Tolosa. JOXEMI SAIZAR

BIOGRAFIA ▶

Jaioturtea. 1536 inguruan. **Jaiolekua.** Ez da oso ziurra, Tolosa seguraski, aitaren familia Larraulgo Anzola etxetik dator. Alonso Idiakezaren familiakoa zen.

Ikasketak. Frantziskotarretan sartu zen eta giza zientziak ikasi zituen Gasteizen. Ondoren Paris eta Lovainako unibertsitateetan ikasi zuen.

Karguak. Goi mailako karguak izan zituen bere ordenean. 1577an Cantabriako probintziala aukeratu zuten. Parisen 1579an Kapitulu Nagusian ordeneko definitzaile nagusia izendatu zuten. 1587an ordeneko generala aukeratu zuten Erromako Kapituloan.

Egindakoak. San Diego de Alcalá kanonizatu zuten; San Buenaventura Elizako doktore izendatu zuten; Arrasate eta Tolosako komentuak sortu zituen; Gasteizen teologia eta filosofia katedrak eta Arantzuko santutegiko liburuzkia sortu zituen.

Goztain. 1597ko urriaren 5ean Tui-ko (Pontevedra, Galizia) Elizbarrutiko gotzain izendatu zuten.

Heriotza. Tuin 600ko irailaren 6ean, peste gaixotasunarengatik.

Besteak. Liburu ugari utzi zituen idatziak eta Gorosabel historialariak askotan aipatzen du bere idatzietan. Sixto V.a Aita Santuak kardenal izateko proposatu zuen.

Kale bat bere izenean Tolosan

Gotzain honen omenez, Tolosako kale batek bere izena darara. HITZAREN egoitza aurkitzen den kalean hain zuzen ere, baina ez da erabiltzen, normalean Araba etorbidearen atzealdea erabiltzen baita. 1977ko urriaren 14ko udalbatzarrean aho batez ezarri zioten Frantzisko de Tolosa Aitari kalea izena, Jose Agirreza-

bala zinegotziak proposatuta, Iñaki Linazosorok *Historia y guía de Tolosa* liburuan aipatzen duenez. Etxebizitzaren sarrerarik ez dagoenez eta oso bulego, denda eta lantoki gutxi dagoenez bertan, izen hori ez da erabiltzen. Oroitarri bat ere badu, Juan Lope eskulturgile tolosarrak egina, Araba etorbideko jolastoki batean. ◀



Juan Loperen oroitarria. J. SAIZAR

▶ hiltzerriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

hiltzerria ▶

Carmen Albisu Amundarain

Atzo hil zen, 78 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Golan bego—

Anai-arrebak: Jose Luis (†) eta Tere Sorroa, Martin (†) eta M. Pilar Franco; ilobak: Loinaz eta Javier Barrera, Ana eta Iñaki Aitzpuru, Karmele, Mikel eta Sara Villanueva; iloba-bilobak: Amaia, Nagore, Ainhoa, Nerea, Aratz, Beñat; lehengusuak eta gainerako ahaideek. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI ZERURATUAREN parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Larramendi 8, 4. ezk., Donostia.
ustekabe helbidea ▶ Urbialde 3, 1. ezk. Beasain.
BEASAIN, 2006ko urriaren 5a
oharra ▶ gorputza Beasaingo Goleiri Beilatokian egongo da.

urteurrena ▶

Periko
1979ko urriaren 5ean 24 urte zituela hil zuten

Alferrik hil hinduten, Periko: borroka eten ez baitzuten. Ez hintzen, ordea, alferrik hil, Periko; borroka ez duk eten.

Hirekin zorretan



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 5a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzera

15

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Aralar Institutuko liburutegian sexu heziketari buruzko hitzaldia izango da entzungai, 18:00etatik aurrera. Gurasoei zuzendutakoa izango da, eta guztiak daude bertara gonbidatuta.

Amezketeta. Hil honen 15ean eragan egingo den Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu dute. Izen-ematea herriko ohiko tabernetan eta Zumadi eskolan.

Belauntza. Eskulan ikastaroan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago. pintura, dekorazioa, jostuntza lanak, bainika... irakasle baten laguntzaz. Ikastaroa urriaren 4ean hasiko da, eta asteartero 17:30etatik 19:30etara iraungo du. Ikastaroaren prezioa 10 eurotako da, hilabetean.

Berrobi. 0 eta 3 urte arteko haurrentzat, jolas, dantza eta kantu ikastaroa, urriaren 17, 18, 24 eta 25ean (egunean 2 ordu). Izen-ematea, urriaren 11 baino lehen. 943 69 37 31 (Oлга).

Irura. Pintura dekoratiboko ikastaroa urriaren 10ean hasiko da, 2007ko ekainera arte iraungo du eta arratsaldez izango dira eskolak, 16:00etatik 17:30era helduak eta 17:30etik 19:00etara haurrak. Izena emateko Irurako Udaleko kultura bulegora edo liburutegira joan behar dute interesatuak edo 943 69 13 33 telefono zenbakira deitu.

Lizartza. Ezker abertzaleak deituta 20:00etan, batzarra egingo dute, udaletxean. Landuko dituzten gaiak: balantzea eta une politikoa eta 2006/07 ikasurterako plangintza.

Tolosa. Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak Italiara egingo du bidaia, hil honen 10etik 16ra, bertan egingo den Castelfidardo Sari Nagusian parte hartzera. Autobusen plaza libreak dituztenez, jendea deia egiten diote bidaian parte hartzeko. Izen-ematea, 607 65 45 46.

Tolosa. Ertzaintzaren bandaren kontzertua izango da, lurreamendin egoitzan, 11:00etatik aurrera,



38. Abesbatza Lehiaketarako abonoak salgai dagoeneko

TOLOSA ▶ Hil honen 31tik azaroaren 5a bitarte, Tolosak 38. Abesbatza Lehiaketa hartuko du. Hori dela eta, Tolosako Ekinbide Etxeak (CIT-TEE) salgai jarri ditu dagoeneko abonoak, hilaren 16ra arte, 17:00etatik 20:00etara. Eskuratu nahi dituenak TEEK Emeterio Arrese kaleko 2. zenbakian duen bulegora jo beharko du. Hilaren 19tik aurrera, berriz, sarrera solteak jarriko dituzte salgai. Be-

rrikuntza berezi bat izango du aurtengoan, gainera: Leidor areto eraberritua, hain zuzen ere. Izan ere, iaz, berritze lanak zirela eta. Usabal kiroldegian garatu behar izan zuten lehiaketa, baina aurtengo edizioan Leidor aretoa prest izango da. Baliagarria izango da, beraz, akustikaren balantzea egiteko. Argazkian, iazko irabazleak, Norvegiako Schola Cantorum abesbatza. I. TERRADILLOS

egoitzako kaperan bertan. **Tolosa.** KZguneko urriko ikastaroetan izen-ematea zabalik. Interesatuak 943 65 37 20 telefono zenbakira deitu. **Tolosaldea.** ETBko *Mihiluze* saiorako lehiakide bila dabilta. Izena eman nahi duenak edo publiko gisa joan nahi duenak, 943 01 17 80 zenbakira dei dezake edo Mihiluze@eitb.com helbidera idatzi. **Tolosaldea.** Urriaren 8an, AHTren aurkako AHT Gelditu! elkarlanak manifestaziorako deia egin du Legution. Bertara joateko autobusa antolatu

dute. Txartelak 8 eurotan eros daitezke Tolosako Rakun eta Meskalen, Ibarra Aratzen eta Zubiaurren, Villabonako Gaztetxean, Zuzurkilgo Aurreran, Adunako Uztartzan eta Anoetako Itzulini.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, zine foruma saioa: Michael Haneke zuzendariaren *Escondido* filma. 21:30etik aurrera, 4 euroren truke. **Tolosa.** Bihar, Leidor aretoan, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma izango da

ikusgai 22:30etik aurrera, 4,5 euroren truke. **Villabona.** Zine-klub saio berri bat, 22:00etatik aurrera, Villabonako Gaztetxean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Espereintziak XX.* mendeko memoriaren berreskuratzeko proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean. **Alegia.** Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketak, azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Xtolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskaniak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri.*
22:00-23:00. *Street.*

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...